

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 507/2021 Erabakia, irailaren 7koa. Behin betiko onestea Arratzua-Ubarrundiako udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa

Ekainaren 10eko 367/2021 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onespena eman zitzaion Arratzua-Ubarrundiako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugaketari. Aldaketa horren xedea da jasotzea Arratzua-Ubarrundiako udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bategina behin betiko onesten duen otsailaren 16ko 60/2018 Foru Aginduaren edukia, hain zuzen ere, azaroaren 9ko 281/2016 eta martxoaren 26ko 71/2021 foru aginduek onetsitako funtsezko baldintzak eta ondorengo aldaketa puntualak betetzeari dagokionez.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluko 4. apartatuan, ezartzen du Arabako Foru Aldundiak entzunaldia eman behar diela eragindako udalei, egoki jotzen dutena adieraz dezaten, gehienez ere hamabost eguneko epean.

2021eko ekainaren 30ean, Arratzua-Ubarrundiako Udalak alegazio idazki bat aurkeztu zuen. Bertan, zenbait zuzenketa proposatu zituen, eta Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak onartu egin ditu.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, erantsitako planoen arabera, Arratzua-Ubarrundiako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugaketa, zeinaren xedea baita jasotzea Arratzua-Ubarrundiako udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bategina behin betiko onesten duen otsailaren 16ko 60/2018 Foru Aginduaren edukia, hain zuzen ere, azaroaren 9ko 281/2016 eta martxoaren 26ko 71/2021 foru aginduek onetsitako funtsezko baldintzak eta ondorengo aldaketa puntualak betetzeari dagokionez.

Bigarrena. Hori gorabehera, kontuan izan behar da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 3.2.b) artikuluan ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten eta herriguneetatik kanpo dauden lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, bai eta lurralde historikoko egunkari salduenetan ere. Gainera, jendaurrean egongo da hamabost egunez, interesdunek egoki irizitako erreklamazioak jar ditzaten. Arratzua-Ubarrundiako Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, 11. artikuluko 5. apartatuan, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 7a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
M^º JOSÉ PEREA URTEAGA